



Bakearen aldeko kontzientzia kolektiboa bultzatzea du helburu Ibone Elordik. Berak antolatu erakusketa. ASIER ALKORTA

BAKEAREN ALDEKO MARTXA AILEGATU DA, ERAKUSKETA ERARA

ONDARROA Gaur eta bihar ikusi ahalko da, Erakusketa Aretoan; bideo proiektzioen bidez ere emango dute martxaren berri 3

«Mehatxuen aurrean» ez dutela bururik jaitsiko esan dute

Zerra i 42 etx eta pla ahalko

AULESTI Planeamen
berri du Udalak, «ale



Behean, ezkerretik eskumarako

Laneko a buruzko prestatu

MARKINA-XEMEIN Le
du, eta Lanbide Hezik

Palestina bertsolar

Bakearen aldeko martxaren gaineko erakusketa, zabalik

Gizartea » Gaur goizez eta arratsaldean eta bihar goizez egongo da irekita Erakusketa Aretoan

LEIRE AKARREGI

Mundu mailan hasita dagoen bakearean eta biolentzia ezaren aldeko martxaren gaineko informazioa batzen du Erakusketa Aretoan erakusketak. Zabalik egongo da, gaur, goizean eta arratsaldean

-11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era- eta bihar goizean -11:00etatik 14:00etara-

Gainera, azaroaren 29an, 12:00etan, «bakearen eta indarkeria ezaren alde» eskulturak egingo dituzte Arrigorri hondartzan. Iluntzean, 19:00etan, argiztatu egingo dituzte eskulturok.

Atxikimenduak

Bideo proiektzioak ikusi eta martxaren nondik-norakoan berri edukiko dute erakusketara doazen herritarrek. Moduberean, eki-

menari euren atxikimendua eman ahalko diote.

Zeelanda Berritik Argentinara

Hil honen hasieran abiatu zen martxa Wellingtonetik (Zeelanda Berria) eta datorren urteko urtaririlaren 2an amaituko da Aconcagua (Argentina). Ibilbidean zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte, «bakearen eta biolentzia ezaren kontzientzia sortzeko». Euskal Herrian ez du geldialdirik egingo, baina norbanako batzuek bat egin dute mugimendugaz.

«Kontzientzia kolektiboa behar da indarkeriari buelta emateko»

IBONE ELORDI » Erakusketaren antolatzailea

Erakusketa prestatzen ibili da egunotan ondarrutarra; bera arduratuko da martxari buruzko informazioa emateaz ere.

Bakarrik ekin dio bideari, baina egin beharrezkotzat du Ibone Elordik (Ondarroa, 1966). Bakearen aldeko kontzientzia kolektiboa bultzatzea du helburu, eta horregatik beragatik batu da mundu mailako martxaren mezura. Oraindik orain martxara begira Euskal Herrian jende gutxi ari dela lanean esan du. Berak prestatu du erakusketa.

Zein helburugaz egin du bat martxaren alde dagoenak?

Kontzientzia bat sortzea da helburu nagusia. Munduan dagoen egoera kritikoa aldatzea ekarriko duen kontzientzia bultzatu behar dela uste dugu martxagaz bat egin dugunok.

Zein da egoera kritikoa hori?



ASIER ALKORTA

Bizi garen arrisku egoeraz ohartzari nahi du martxak. Gatazka nuklearrerako arrisku handia dago munduan.

Horren aurrean zer egin behar dela edo zer egin daitekeela uste duzu?

Bakearen aldeko kontzientzia dagailendu behar dena. Indar guztiak horren alde ipintzea garrantzitsua da: tropa erasotzaileak atera behar dira herri okupatuetatik, armen murrizketa lortu behar da...

Irakaskuntzan diharduzu. Zein da alde horretatik egin daitekeena?

Indarkeria sakonean landu behar da egunerokotasunean, baita ikasketxeetan ere. Indarkeria zentzu guztietan ulertu behar dugu, ez fisikoan bakarrik, barruan bizi dugun gatazka hori ere indarkeria da, eta gehiago daude: ekonomikoa, soziala, sexuala... Horiek guztiak gainditzeko egin behar dugu lana. Sistema bortxatzaile baten menpe gaude, eta sistema kolektiboa behar da horri buelta emateko.



HITZA argazki lehiaketa

INFOR
Oharra:
ditu eta